

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure balorezko proposamena, gizakiok jatorriz dugun kuriositatea asetzea, herrialde ezberdinetako janari tipikoekin eta pertsona ezberdinak haien jatorrizko herrialdeetara hurbiltzea da. Gainera, munduan zehar dagoen gastronomia mota ezberdinak ezagutzea errazaraziko dugu. Nahiz eta interneten webgune askotan saltzen diren produktu mota haueak, bat ere ez du eskaintzen nazioarteko katalogo osorik; eta alde guztietako pertsoneri beren erkidegotik hurbilago egoten lagunduko diena.

Pertsona asko, gazteak batez ere, haien herrialdetik kanpoan bizitzeko behartuta daude eta oso urrun sentitzen dira haien jatorrizko komunitate eta kulturatik. Hau, bakardade sentimendua sorrarazten du. Janaria da modu eraginkor bat sentimendu hauei aurre egiteko, gure haurtzaroan jan genituen gauzak leku berezi bat daukate gure oroimenean eta ondo sentitzen gara momentu horiek gogoratzen. Horregatik, beste herrialde batean isolatuta dauden pertsoneri ondo datorkie izatea webgune bat haien jatorrizko herrialdearen janariak erosi ahal izateko.

Gainera, egoera horretan ez dauden pertsonaentzako ere interesgarria izan ahal da ezagutzen ez duten gastronomia frogatzea edo entzun duten janari tipiko bat dastatzea.